



### OSTEGUNZURI: Otsailak 4

- 16:00 Trapujale Txikia. Lezo Herri Eskolak Trapujaleri harrera eta ongietorria emango dio.
- 17:30 Trapukoplak kalejiran Musika Eskolatik abiatuta (baserritarrez, trapujalez edo arropa ilunarekin jantzita: txapela, zapia eta makila).
- 19:30 Trapujaleren jaitsiera. Martizkone baserritik aterako da TGLUMEko taldeak eta Alde Zaharreko Joaldunen laguntzarekin. Pregoia eta arranpuila.
- 20:00 Trapujaleren lagunak omentzen. Aurtengo orogarri bereziaren banaketa: Alde Zaharreko joaldunei Gurutze Santuaren plazan

### OSTIRALORI: Otsailak 5

- 09:30 Kalejira Herri osoan zehar Lezo Herri Eskolako eta Lezo Institutuko ikasleekin.
- 10:30 Lezo institutua eta Lezo Herri Eskolako ikasleen eskutik "Mundu luze-zabaleko inauteriak" emanaldiaren ikuskizuna Bekoerota kiroldegian.
- 11:00 "Trapujale festa" Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleen eskutik Gurutze Santuaren plazan (eguraldi txarra egingo balu, Karlos Saldise plazan).  
Ondoren, hamaiketakoa eta Trapu Jolasak mailaka.
- 19:00 Zirikuen kalejira eta Sorgin Dantza herrian zehar Murixka Dantza taldearekin (Bekoerota kiroldegitik abiatuta).
- 19:15 "Erdi Aroko inauteriaren dantzak" desfilean Lezoko Euskal Dantzazaleekin eta jarraian, Gurutze Santuaren plazan emanaldia (eguraldi txarra egingo balu, Karlos Saldise plazan).
- 20:00 Enkartelada.
- 21:00 Antzerki emanaldia Gurutze Santuaren plazan Gazte Asanbladaren eskutik.
- 21:30 Afari-herrikoia Lezoko Euskal Dantzazaleek antolatua Aizpea tabernan, (txartelak salgai tabernan 15€. Erdi aroko mozorroaz etortzea eskatzen da).

### LARUNBATGORRI: Otsailak 6

- 16:00 "Munduko Inauteriak" kalejiran, Lopene plazatik abiatuta. Lagun artean elkartuz, munduko inauteri eta kultura bat aukeratuz, mozorrotuz... zatozte kalejiran parte hartzera! Bukaeran Gurutze Santuaren plazan txokolatada goxoa.

### IGANDUBEL: Otsailak 7

- 12:30 "Iparraldeko inauterien" kalejira Murixka Dantza taldearen eskutik Kiroldegitik abiatuta Gurutze Santuaren plazara (eguraldi txarrekin Karlos Saldise Plazan).

### ASTELEHENARRE: Otsailak 8

- 16:00 20. urteurrenerako Orratz! Taldeak antzeztu zuen "Trapujale" emanaldiaren zine-ikuskizuna Gezalan.
- 18:00 Eclipse taldeak prestaturiko Flash Movie-a Karlos Saldise plazan. Jarraian, mozorroen lehiaketa eta amaieran Txokolatada.

### ASTEARTEBELTZ: Otsailak 9

- 15:15 Lezo Herri Eskolako ikasleekin epaiketa txikiaren antzekizuna Gurutze Santuaren plazan.
- 16:00 Txokolatada Lezo Herri Eskolan.
- 19:30 Trapujaleren epaiketa Gurutze Santuaren plazan. Herio bidaia, Inauteriari agurra eta txerrijana plazan.